



Colegio Oficial de
Ingenieros Industriales
de Bizkaia

Bizkaiko
Industri Ingeniarien
Elkargo Ofiziala

BIZKAIKO INDUSTRI INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALEKO BARNE-ARAUDIA

2014ko maiatzaren 28ko Ezohiko Batzar Nagusian onartua

AURKIBIDEA

I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

Artículo 1º.-	Araudiaren xedea	3
Artículo 2º.-	Eremua eta helbidea	3
Artículo 3º.-	Elkargoaren helburu eta eskumenak	3
Artículo 4º.-	Kexak eta erreklamazioak	4

II. TITULUA - ELKARGOKIDEAK

Artículo 5º.-	Elkargokidetzea	4
Artículo 6º.-	Elkargokide izateko dokumentazioa	6

III. TITULUA – ELKARGOAREN EGITURA

Artículo 7º.-	Batzar Nagusiaren funtzioak	7
Artículo 8º.-	Ezohiko Batzar Nagusia	7
Artículo 9º.-	Gobernu Batzordearen eskumenak	7
Artículo 10º.-	Gobernu Batzordean bete gabeko postuak	8
Artículo 11º.-	Batzorde Iraunkorra	9
Artículo 12º.-	Batzorde Iraunkorraren funtzioak	9
Artículo 13º.-	Batzorde Iraunkorraren bilerak	10
Artículo 14º.-	Batzordeak eta Batzorde Txostengileak	10
Artículo 15º.-	Etika eta Deontologia Batzordea	11
Artículo 16º.-	Dekanoaren eskumenak	11
Artículo 17º.-	Idazkariaren eskumenak	11
Artículo 18º.-	Kontu-hartzailearen eskumenak	12

IV. TITULUA – ELKARGOAREN EKONOMIA-ERREGIMENA

Artículo 19º.-	Baliabide arruntak	12
Artículo 20º.-	Fondoan mugimendua	12
Artículo 21º.-	Kontu-ematea	13

V. TITULUA – DIZIPLINA JURISDIKZIOA

Artículo 22º.- Errekurtsoak	13
------------------------------------	-----------

VI. TITULUA – ELKARGOKO LANGILEAK

Artículo 23º.- Kontratutako langileak	13
Artículo 24º.- Zuzendari Gerentearen eskuduntzak	14

VII. TITULUA – ERREGISTROAREN IKUS-ONESPENA ETA DOKUMENTU-KUDEAKETA

Artículo 25º.- Proiektuen ikus-onespena	16
--	-----------

I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

Artículo 1º.- Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da Estatutu Orokorren arauak Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren (aurrerantzean "BIIEO") egoera berezietara egokitzea, horren edukia zabaltzea eta aplikazio praktikorako arauak ezartzea, 2014ko Ezohiko Batzar Nagusian onartutako Estatutuen 4. Azken Xedapenean ezarritakoa betez (Aurrerantzean "Estatutuak").

Elkargoa araudi honen arabera zuzenduko da. Dokumentuak izan lezakeen edozein aldaketa Batzar Nagusiak eta, ondoren, Elkargoen Kontseilu Nagusiak onartu beharko dute, Elkargoen Estatutu Orokorren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artículo 2º.- Eremua eta helbidea

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo Ofizialaren lurralde-eremuak Bizkaia Lurralde Historikoa barne hartzen du. Egoitza Bilbon dauka, Mazarredo Zumarkaleko 69 zenbakian, 2. solairuan (48009). Helbidea aldatzeko aukera izango da, baldin eta Elkargoaren Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

Artículo 3º.- Elkargoaren helburu eta eskumenak

BIIEOaren helburu eta funtzioak Estatutuen 6. eta 7. artikuluetan jasota daude, baina, 7. artikulua ab atalean garapenean, gainera, honako eskumenak ere adierazita daude:

Industria Ingeniariaren ezaugarri profesionalen defentsarako ikerketa eta garapen-ekintzak sustatzea; industria ingeniaria oinarrizko prestakuntza zabala duen goi-mailako orotariko teknikaria izanik, arazo konplexuei aurre egiteko gaitasuna duelako.

Balio erantsiko zerbitzuen eta lan kolektiborako tresnen bitartez babesa ematea, lehiakortasun profesionala eta ongizate pertsonala sendotze aldera.

Artículo 4º.- Kexak eta erreklamazioak

Estatutuen 10. artikularen 2) atalean Kontsumitzaile eta Erabiltzaileentzako Zerbitzuari buruz xedatutakoa egoki kudeatze aldera, "Kontsumitzaile eta erabiltzaileen kexa eta erreklamazioen Erregistroa" sortuko du Elkargoak.

Era berean, Elkargoko kideekiko harremanak egoki kudeatze aldera, "Elkargokideen kexa eta erreklamazioen Erregistroa" osatuko du Elkargoak, baita "Elkargoan izena emana duten Sozietate Profesionalen erreklamazioen Erregistroa" ere.

II. TITULUA - ELKARGOKIDEAK

Artículo 5º.- Elkargokidetzea

1. Elkargokideak. Estatutuen 11. artikuluan xedatutakoa betez, Elkargoak barne hartuko ditu kide izateko eskabidea egiten duten pertsona titulatuak.

Hartara, industria-arloko espezialitatetzat hartuko dira jarraian adierazita daudenak, zehaztasunik gabe: Ingeniaritza Kimikoa, Antolamendu Ingeniaritza, Materialen Ingeniaritza, Elektronika eta Automatika Ingeniaritza, Ingurumen Ingeniaritza, Ingeniaritza arloko Gradu eta Masterrak.

Ezin izango dute izena eman legez beste Elkargo Ofizial batean egon beharko luketen pertsonak.

11. artikuluan jasotako baldintzen arabera, Elkargokide gisa izena eman ahal izango dute soilik Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCT) jasota dauden titulazioak dauzkaten pertsonak.

Ezin izango dute izenik eman epai judizial bidez egokitasuna ukatua izan duten titulazioak dituzten pertsonak.

Izen-ematea eskatzen duten pertsonak, baldin eta egokitasuna errekurritutako titulua badute, behin-behinean inskribatuko dira, errekurtsuari dagokion epaia ematen den arte. Errekurtsioa atzera bota bada, izen-ematea behin betikoa izango da; eta errekurtsioa onartuz gero, izen-ematea ukatu egingo da. Elkargoak egoera horren gainean ohartaraziko die izen-ematea eskatzen duten pertsonari.

Kasuan kasu izen-ematea egiten den ala ez zehazteko, Elkargoak aipatutako Erregistroa eta errekurso-zerrendak erabiliko ditu, azken horiek Industria Ingeniarien Batzorde Nagusiak eta Espainiako Industria Ingeniarien Elkarteen Federazioak aurkeztutakoak. Egiteko horretan, aipatutako erakundeek errekursoekin lotuta emandako epaiei buruz egindako zerrendak ere erabiliko dira.

Elkargokidetzea eten egingo da Kontseilu Nagusiak Elkargoari jakinarazi dionean eskatzailea elkargo erakundetik kanporatu edo gaitasungabetu egin dutela zehapen irmo bidez.

Izen-emateen kudeaketa errazte aldera, Elkargoak "Elkargokideen Izen-emate Prozedura" osatuko du, Gobernu Batzordeak onartu beharrekoa.

2. **Elkargoarekin lotura duten beste figura batzuk.** Estatutuen 11. artikularen 8. atalean xedatutakoaren arabera, Estatutuen 11. artikularen 1 eta 2 ataletan jasotako titulazioetatik ezberdina duten pertsonak izen-ematea eskatzen badute, "Elkargoko Beste Figura batzuen Araudia"ren arabera egingo da, Gobernu Batzordeak onartuta. Araudiak barne hartu beharko ditu, gutxienez, izena emateko baldintzak eta inskribatuen eskubide eta betebeharrak.
3. **Ekintza-eremua.** Elkargokideek beste Elkargo baten esparruan burutu ahal izango dute euren lanbidean, betiere xede-elkargoak ezarritako arau orokor eta espezifikoak errespetatzen badituzte, indarreko araudia betez. Ezin izango dute gaikuntza ematen duen Elkargoko organoetan eskubide osoko kide gisa parte hartu.
4. **Erregistroak.** Elkargoak elkargokideen erregistroa dauka. Elkargoak elkargokideen eta Sozietate Profesionalen Erregistroetako alta, baja eta bestelako aldaketen gaineko informazioa emango die Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiari eta Industria Ingeniarien Euskal Kontseiluari, jakinaren gainean egon daitezen eta Elkargokide eta Sozietate Profesionalen Erregistro zentraletan jasota gera dadin.

Artículo 6º.- Elkargokide izateko dokumentazioa

Elkargokidetzeko Eskaera aurkeztu beharko da, horretarako inprimakia erabilita, eta honako dokumentuak eta fitxategi informatikoa eman beharko dira:

1. Ingeniaritza Industrial Titulu ofiziala, haren fotokopia konpultsatua, edo titulua eman duen Zentroak igorritako ziurtagiria.

Titulua izapide-aldian badago, honako dokumentuek ordeztu ahal izango dute:

Titulua jaulkitzeko tasak ordaindu izanaren agiri orijinala edo haren fotokopia konpultsatua.

Ziurtagiri akademiko pertsonalaren jatorrizko dokumentua, gainditutako irakasgai guztiak eta gainditutako karrera amaierako proiektua barne, edo horren fotokopia konpultsatua.

Edozelan ere, Industria Ingeniari titulua ordeztzen duten dokumentu horiek, titulua jaso bitartean, ondorio profesionaletarako ofizialki onartuak izan beharko dute Espainian.

2. Argazki eguneratua koloretan, txartel tamainakoa, formatu digitalean.
3. NANaren fotokopia.
4. Bankuan kuotak ordaintzeko agindu-gutuna, behar bezala bete eta sinatuta.
5. Elkargoaren kuotaren hobari-eskaria, hala badagokio.
6. Izen-emate eta elkargokidetzeari dagokion kuota ordaindu beharko da. Kuota hori ezin izango da, inola ere, izena emateko tramitazioari lotutako kostuak baino altuagoa izan.

Izapidea leihatila bakarraren bitartez egin daiteke.

7. Estatutuen 11. artikulua 2 atalean adierazi legez, hiru hilabeteko epea izango da elkargokide egiteko beharrezko baldintzetan balizko akatsak zuzentzeko.

III. TITULUA – ELKARGOAREN EGITURA

Artículo 7º.- Batzar Nagusiaren funtzioak

Estatutuen 30. artikuluan adierazitakoaz gain, Batzar Nagusiaren eskumenak dira honakoak:

- a) Estatutu Orokorrei eta horien aldaketei buruz Batzordeak egindako proposamenak aztertu eta, hala badagokio, onartzea.
- b) Proposamen horiek aztertzea eta Batzordeari goratzea, Elkargoak berak proposatuak direnean.
- c) Elkargoaren Araudiari buruzko proposamenak onartzea, baita horien aldaketak ere.

Artículo 8º.- Ezohiko Batzar Nagusia

Deialdia. Batzar Nagusia ezohiko saioan bilduko da Gobernu Batzordeak hala deitzen duenean, bere ekimenez nahiz elkargokideen eskariz (%10etik gora). Azken kasu horretan, Batzar Nagusia egin beharko da eskaria jaso den unetik hilabete igaro baino lehen.

Artículo 9º.- Gobernu Batzordearen eskumenak

Estatutuen 33. artikuluko I atalean xedatutakoaren garapenean, Gobernu Batzordearen eskumenekoak izango dira honakoak ere:

- a) Korporazioaren betebeharrak zuzentzea eta betetzen direla zaintzea.
- b) Jurisdikziopean dauden Industria Ingeniariek beren lanari dagozkion ordainsariak jasotzeko ikerketa eta gestioak burutzea, eskubide profesionalak, lan zein kontratu arlokoak kaltetu gabe, eta, bereziki, lanbidearen jardunean beharrezko autonomia eta independentzia teknikoa zaintzea.
- c) Gobernu Batzordea osatzea eta bertako kideak izendatzea; gauza bera Gobernu Batzordeak agindutako izapideen arduradun diren Lan Batzordeei dagokienez ere (Batzorde Iraunkorra, besteak beste).

- d) Gobernu Batzordeko kideak izendatzea, Dekanoarekin batera Elkargoen Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkura osatzen dutenak.
- e) Zuzendaritza karguren bat behin-behinean edo behin betiko ordeztu edo laguntzeaz arduratzen diren Kideak izendatzea.
- f) Elkargokideek egindako lanen balioa egoki eta osotasunean kobratzeko aholkularitza eskaintzea.
- g) Kontseilu Nagusiari bidaltzea Barne-araudian ezarritako Organismo honen funtzionamendu egokirako beharrezko informazioa, honakoa besteak beste: Beste Elkargo batzuei eragiten dieten gaiei buruz planteatzen diren errekurtsioak goratzea, baita Gobernu Batzordearen erabakiei buruz elkargokideek planteatzen dituztenak ere.
- h) Zuzendari Gerentea kontratatzea, lehiaketa bidez. Izendapen hori Batzar Nagusiak berretsi beharko du.
- i) Batzorde eta zerbitzuak egoki martxan jartzeko beharrezko langile guztien kontratazioa eta horien jarduna kontrolatzea, Zuzendari Gerentearen bitartez.
- j) Gobernu Batzordeak edo Batzar Nagusiak erabakitzen duen beste edozein funtzio, betiere lanbidearekin zerikusia badute, Kontseilu Nagusiak hartutako derrigorrezko lege-xedapen eta erabaki orokorren kontra egiten ez badute.

Artículo 10º.- Gobernu Batzordean bete gabeko postuak

Dimisioaren edo beste ezein kausa baten ondorioz karguren bat hutsik geratzen denean, Gobernu Batzordeak izendatuko du, behar izanez gero, bere kideen artean postu hori beteko duen pertsona, hurrengo hauteskundeak egin arte; hauteskundeak egiten direnean bete beharko dira hutsik geratu diren kargu guztiak.

Gobernu Batzordeko kargu bi edo gehiago, edo kideen erenak, bete gabe geratuko balira, hauteskunde bereziak deitu beharko dira, gehienez hilabeteko epean, hutsik geratu diren kargudun eta kideen postu horiek betetze aldera. Hauteskunde berezi horietan hautatutako Kargudun eta Kideek beren funtzioak bete beharko dituzte, araudiaren arabera, ordeztu duten pertsonari kargua uztea egokituko litzaiokeen hauteskundeak burutu arte. Hauteskunde horiek egiteko araudia ohiko hauteskundeak

egiteko xedatutako berbera izango da, Estatutuen 42. artikuluan adierazitako data zehatzetan salbu; baina, edozelan ere, artikulua horretan xedatzen diren epeak errespetatu beharko dira.

Hauteskundeak ezin izango dira abuztu eta irailean deitu edo burutu, eta, horrela suertatuz gero, deialdia urrira arte atzeratu beharko da.

Aurretik aipatutako xedapenei dagokienez, salbuespena izango da bete gabe geratu den kargua Dekanoarena bada. Horrelakorik gertatuz gero, Dekanordeak beteko du kargua automatikoki eta Batzordeak bere kideen artean Dekanordea aukeratuko du, behin-behinean. Hauteskunde bereziak egin behar izanez gero, azken kargu hori ere barne hartuko da.

Artículo 11º.- Batzorde Iraunkorra

Gobernu Batzordeak edozein momentutan ordeztu ahal izango ditu Batzorde Iraunkorreko Kideak.

Kudeaketa Zuzendariak parte hartu beharko du Batzorde horren bileretan, hitzez bai baina botorik gabe.

Artículo 12º.- Batzorde Iraunkorraren funtzioak

Gobernu Batzordeak hartutako erabakien betearazle jardungo du Batzorde Iraunkorrak eta, haren delegazioz, honako funtzioak hartuko ditu bere gain:

- a) Gobernu Batzordeak bere baitan eratzen dituen Batzorde eta Batzorde Txostengileen gaineko kontrolaz arduratzea, Araudi honen 41. artikuluan xedatzen denaren arabera.
- b) Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak betetzen direla zaintzea.
- c) Korporazioaren funtzioak zuzentzea eta betetzen direla zaintzea.
- d) Gobernu Batzordeak berariaz delegatutako funtzioak.
- e) Gobernu Batzordearen berezko beste edozein funtzio, ebazteko premiagatik Gobernu Batzordearen hurrengo bilera egin arte itxaron ezin denean.

Batzorde Iraunkorrek erabaki guztien berri eman beharko dio Gobernu Batzordeari, jakinaren gainean egon dadin eta horiek berrets ditzan.

Batzorde Iraunkorrek bilerara deitu ahal izango ditu egoki irizten dituen Batzorde eta Batzorde Txostengileetako presidentek, baita Gobernu Batzordeko edozein Kide edo kontratatutako edozein langile ere.

Artículo 13º.- Batzorde Iraunkorren bilerak

Dekanoak edo, haren ordeztan, Dekanordeak deitzen duen guztietan bilduko da Batzorde Iraunkorra.

Artículo 14º.- Batzordeak eta Batzorde txostengileak

Gobernu Batzordeak, bere ekimenez edo Batzar Nagusiaren erabakiz, Batzorde delegatuak eratu ahal izango ditu, Araudi honen 6. artikuluan jasotako helburuak hobeto betetze aldera.

Gobernu Batzordeak edo, hala dagokionean, Batzar Nagusiak dagozkien funtzioak esleituko dizkie Batzorde delegatu ezberdinei, eta Batzorde delegatua arduratuko da Gobernu Batzordearen aurrean horien betearazpena bermatzeaz, Presidentearen bitartez.

Gobernu Batzordeak bere kideen artean aukeratuko du Batzordeko Presidentea; horaxe izango da batzordearen jardunaren arduraduna, eta Batzorde horren eta Gobernu Batzordearen arteko lotura gisa jardungo du. Halaber, Batzorde horrek erabakiko du bere kideetako zeinek parte hartuko duen Batzorde delegatu batean eta, era berean, aukera izango du egoki irizten dituen elkargokideak Batzordean barne hartzea erabakitzeko. Kudeaketa Zuzendaria arituko da Batzordeen Idazkari lanetan, betiere kontrako erabakirik hartzen ez bada. Batzorde baten eraketaren gaineko aldaketa oro Presidenteak proposatu beharko dio Gobernu Batzordeari, eta azken horrek onartu beharko du, betiere Batzar Nagusiak aurretik erabakiaren kontra egin ez badu.

Gobernu Batzordeak eskubidea dauka edozein Batzorde delegatu desegiteko, beharrezkoa izateari utzi diola uste badu.

Gobernu Batzordea eta, haren izenean Batzorde Iraunkorra, arduratuko da Batzorde delegatuen jardunaren gaineko kontrol eta fiskalizazio egokiaz, eta, hartara, egoki irizten dituen arauak ezarriko ditu.

Era berean, aukera izango du gai zehatzen inguruko txostenak egiteaz arduratuko diren Batzorde Txostengileak eratzeko, eta txosten horiek Gobernu Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, ondoren ebazpena egiteko. Batzorde Txostengileak modu automatikoan desegingo dira Gobernu Batzordeak haren txostena onartu duenean edo aurretik esleitutako helburuak lortu direla uste denean.

Artículo 15º.- Etika eta Deontologia Batzordea

Gobernu Batzordeak Etika eta Deontologia Batzordea izendatu ahal izango du eta kontsulta-organo gisa jardungo du, Gobernu Batzordearentzat eta kasuan kasuko espedienteen izapidegileentzat.

Artículo 16º.- Dekanoaren eskumenak

Estatutuen 36. artikuluan xedatutakoaz gain, Dekanoak honako funtzioak ere izango ditu:

- a) Batzar Nagusi, Gobernu Batzorde eta Batzorde Iraunkorren deialdiak agintzea.
- b) Batzar Nagusi, Gobernu Batzorde eta Elkargoaren kontu-emate guztietako Aktak ikus-onespen bidez baimentzea.
- c) Elkargoak jaulkitako dokumentu, ziurtagiri eta txostenak ikus-onespen bidez baimentzea.
- d) Elkargokideen txanda aldatzea, kasu justifikatuetan.
- e) Karguak berez dakartzan gainerako eskuduntzak.

Artículo 17º.- Idazkariaren eskumenak

Estatutuen 38. artikuluan xedatutakoaz gain, Idazkariaren eskumenekoak izango dira honakoak ere:

- a) Elkargokide berriak egiteko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzea, Gobernu Batzordean horien onarpena proposatu baino lehen.

- b) Elkargoari eskatutako lanen txandaz arduratzea, Gobernu Batzordean ezarritako arauen arabera.

Artículo 18º.- Kontu-hartzailearen eskumenak

Estatutuen 38. artikuluan xedatutakoaz gain, Kontu-hartzailearen eskumenekoak izango dira honakoak ere:

- a) Hiruhileko egoeraren balantzea egitea, Aurrekontuarekin alderatuta gertatu diren desbideratzeak jasota, eta dagokion txostena Gobernu Batzordeari aurkeztea.
- b) Kontabilitate-sistema egoki betetzen dela zaintzea eta ekitaldiko balantze orokorra formulatzea, baita onartutako aurrekontuarekin alderatzea ere, edozein kasutan, Gobernu Batzordea jakinaren gainean mantenduta.
- c) Gobernu Batzordeari aurrekontu-proiektu bat aurkeztea, urte bakoitzean, azaro edo abenduko Batzar Nagusirako deialdian ezarritakoa baino 10 egun lehenago.

IV. TITULUA – ELKARGOAREN EKONOMIA-ERREGIMENA

Artículo 19º.- Baliabide arruntak

Estatutuen 74. artikuluan xedatutakoez gain, baliabide ekonomiko arruntak izango dira jarraian zerrendatzen direnak:

- a) Batzar Nagusian finkatutako zenbatekoetako izen-emate kuotak, Gobernu Batzordeak, egoera ekonomikoa haztatuta, aurkeztu dituen arrazoizko proposamenen arabera. Ez zaie izen-emate kuotarik eskatuko Elkargoz aldatzen diren pertsonei.
- b) Batzar Nagusiaren erabakiz beharrezkotzat jotzen direnak, baldin eta zerbitzu korporatiboaren ezarpenaren ondoriozkoak badira.

Artículo 20º.- Fondoek mugimendua

Karguak, igorpenak eta Elkargoaren fondo-mugimenduarekin lotutako dokumentu guztiak onartzeko bi sinadura beharko dira, hauetatik edozein: Dekano edo Dekanordearena, Kontu-hartzailearena eta Zuzendari-Gerentearena. Banku-erakundeetan Elkargoaren

izenean irekitzen diren kontu korrontek eta balore-gordailuak. Gobernu Batzordeak dagozkion formalitateak ezarriko ditu fondoek mugimendua ahalbidetzeko.

Artículo 21º.- Kontu-ematea

Elkargoaren urteko balantzeak eta emaitzen kontuak zehaztasun osoz egingo dira eta Elkargoaren Kontseilu Nagusiari igorriko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin, Batzar Nagusiak onartu eta hamabost eguneko epean.

V. TITULUA – DIZIPLINA JURISDIKZIOA

Artículo 22º.- Errekurtsoak

Gobernu Batzordeak ezarritako zehapenen kontra erregu-errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira Elkargoaren Kontseilu Nagusiaren aurrean; horretarako, hamabost egun baliorduneko epea izango dute interesdunek, eta horien ebazpenak administrazio-bidea agortuko du. Edozelan ere, jardun profesionala sei hilabetetik gora eten edo Elkargotik kanporatu den kasuetan, Kontseilu Nagusiaren ebazpenari errekurtsoa jarri ahal izango zaio hamabost eguneko epean, Industria Ministerioaren aurrean.

Zehatuak errekurtsorik aurkeztu ez badu ere, lanbide-jarduna sei hilabetez baino gehiagoz eteten duen zehapen oro goratu eta Industria Ministerioari igorriko zaio, Gobernu Batzordearen txostena erantsita, titular horren zehapena berretsi, berritu edo moldatze aldera. Baldintza hori bete gabe ez da ebazpenik egikarituko.

Industria Ministerioak administrazio-bidea agortzen duten zehapenei buruz emandako ebazpenen kontra, hala zuzenean nola erregu-bidea erabilita, dagozkion errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen arabera.

VI. TITULUA – ELKARGOKO LANGILEAK

Artículo 23º.- Kontratatutako langileak

Batzordeen, eta Elkargoko administrazio-zerbitzu orokorren, funtzionamendu egokia bermatze aldera, Gobernu Batzordeak beharrezko irizten dituen langile tekniko, administratibo edo menpekoak kontratatu ahal izango ditu.

Erregimen orokorreko ordainsaria eta lan-baldintzak kasuan kasu dagozkion arauen arabera finkatuko dira.

Artículo 24º.- Zuzendari Gerentearen eskuduntzak

Zuzendari Gerentearen eskumenekoak dira honakoak:

- a) Gobernu Batzordearen bileretara joatea, batzordekideei bertan jorratzen diren gaien berri emateko.
- b) Elkargokideei lanbidearekin lotutako alderdi legalen berri eman eta aholkularitza eskaintzea, Gobernuaren edo Probintzia zein Tokiko Organismoen aldizkako argitalpenean jasotako xedapenen erregistroa eginez. Elkargokideei lanbidearen jardunarekin lotuta dauden bestelako edozein gai orokorren berri ematea.
- c) Elkargo barruan dauden eta sortzen diren Batzorde delegatuei euren lanen garapen normalerako beharrezko baliabideak eskaintzea, horietako Idazkari postua betez, betiere Gobernu Batzordeak kontrakoa erabakitzen ez badu.
- d) Gobernu Batzordearen Delegazioz, eta Elkargoan hartarako izendatutako Batzorde bat egon ezean, elkargokideen legezatzeko aurkezten dituzten proiektu, txosten eta abarrei dagozkien eskubideen kobrantzaz arduratuko da.

Egindako kitapenaren inguruan adostasunik egon ezean, Proiektu, txosten edo dagokion dokumentuaren egileak errekurtsioa jarri ahal izango du Gobernu Batzordearen aurrean.

- e) Enpresa eta Erakunde Ofizial zein pribatuekin harreman zuzena edukitzea, Elkargoak ikus-onetsi beharreko proiektuen derrigorrezko Ikus-onespena betetzen dela bermatze aldera. Funtzio berberak betetzea borondatezko ikus-onespenen kasuan.
- f) Proiektuak sortzeagatik elkargokideei dagozkien ordainsariak kobratu behar diren kasuetan aholkularitza eskaintzea.
- g) Erakunde Ofizial edo partikularren proiektuak aurkezteko eskatzen diren baldintza zehatzen berri ematea.

- h) Langileak eta elkargokideak hautatzeko Enpresa, Erakunde espezializatuekin harreman estuan, etengabe eguneratuta dagoen lanpostuei buruzko informazio-zerbitzu bat antolatzea, lanpostuaren ezaugarri eta baldintzak adierazita.
- i) Elkargokideen lanpostu eskaerei buruzko fitxategi konfidentziala ezartzea, eskatzailearen baldintzak eta lehentasunak erregistratuko dituen, balizko bat-etortzeak kudeatzeko.
- j) Elkargokideen Erregistroa aldian-aldian eguneratzea, Ingeniarien jarduera espezifikoa eta lanpostuak ezagutzeko datu zehatzak jasota.
- k) Dokumentazio-zerbitzuak antolatu eta gainbegiratzea, informazio egokia eskuratze aldera.
- l) Elkargoko langile guztien Zuzendari Nagusia izango da langileen lana antolatu eta kontrolatzeko arduraduna, administrazio-zerbitzuen ahalik eta eraginkortasunik handiena lortze aldera.
- m) Nazio mailako zein nazioarteko beste Elkargo edo talde profesional batzuekin harremana sortzea, ideia, informazio eta abarren trukea sendotze aldera.
- n) Lanbidearekin lotutako zeregin zientifiko, tekniko, ekonomiko, sozial eta kulturalen garapena sustatzea.
- o) Lanbide-jardunerako derrigorrezko elkargokidetzea betetzen dela zaintzea, indarreko Estatutu Orokorretako hirugarren artikuluan jasotako salbuespena kontuan izanik.
- p) Gobernu Batzordearen eta Batzorde Delegatuen erabaki guztiak betearaztea, baita horiek agindutako lanak garatu eta betetzea ere.
- q) Azkenik, Zuzendari Gerenteren berezko gainerako funtzioak izango ditu, betiere Dekanoaren eta Gobernu Batzordearen menpe.

VII. TITULUA – ERREGISTROAREN IKUS-ONESPENA ETA DOKUMENTU- KUDEAKETA

Artículo 25º.- Proiektuen ikus-onespena

Gobernu Batzordeak bere kide edo elkargokide batengan edo gehiagorengan delegatuko du Elkargoari legeztatzeko aurkezten zaizkion erregistro, ziurtagiri edo proiektuak ikus-onesteko ardura. Adostasunik ezean, proiektuaren egile den elkargokideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du Gobernu Batzordearen aurrean.

Kudeaketaren delegazioa jaso duten pertsonak Gobernu Batzordeak egindako Kudeaketa Prozeduraren arabera burutuko dituzte ikus-onespenak.